

Ekintzia	MATERIALA	Nor	Testua
Ongietorrixa	<b>1. Argazkia</b>	Olatz Osa	<p>Eguerdi on guztioi eta ondo etorrixak: herrittarrak, senidiak, lagunak, erakundietako ordezkariak: Juan Bautista Mendizabal Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteko presidentia eta Jose M<sup>a</sup> Arrazola, Eusko Ikaskuntzako Gipuzkuako lehendakariordia. Baita Estibaliz Alkorta, Eusko Jaurlaritzako Euskara Sustatzeko Zuzendarixa eta Garbiñe Mendizabal, Gipuzkuako Foru Aldundiko Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendarixa be.</p> <p>Eskerrik asko guztioi etortiatatik. Espero dogu Jerardoren omenez antolatu dogun egun hau berak merezi dauen modukua izatia eta zuek danok oroitzapen ona eruatia. Ia, ba, hala izaten dan!</p> <p>Astian zihar egittarau zabala izan dogu: erakusketia, hitzaldixa, mahai-ingurua, filmen emunaldixa... Gaur, ostera, Jerardo Elortzaren omenaldixaren egun nagusixak ekarri gau honaiño eta, orain, ospakizun honi hasieria emuteko unia aillegau da.</p> <p>Hasteko, oholtza honetan gurekin dittugun lagunak aurkeztuko dotsuet: Mikel Biain, Oñatiko alkatia. Iñaki Aldekoa, idazlia eta editoria, Roberto Altuna, antolakuntza taldekua eta Jerardo Elortza, gaur hemen omendua.</p>
Aurrezkua 5 min		Olatz Osa	Omenaldixari hasieria emuteko, ohorezko aurrezkua eskiñiko xaue Jerardori Arantzazu Ugartek eta Julen Kortabarriak, Udal txistulari bandiaren laguntzaz.
Dantzariak eta txistularixa			
Antolatzaillien bi berba 5 min		Olatz Osa	Eskerrik asko! Orain, Roberto Altunak, omenaldixaren eta aste osoko jarduera eta ekintzen zergatixa eta nundik-norakua agertuko dosku.
	<b>2. Argazkia: Weborria 3. Argazkia: Wikipedia</b>	Roberto Altuna	
Laudoriuma	<b>4. Argazkia</b>	Olatz Osa	<p>Eskerrik Asko, Roberto.</p> <p>Ondoren, Iñaki Aldekoak Jerardori eskiñitako laudoriozko berbak esango dittu.</p>
		Iñaki Aldekoa	

Ekintzia	MATERIALA	Nor	Testua
Aspaldiko Lauaxeta gogoratuz...  5 min	<b>5. Argazkia</b>	Olatz Osa	Eskerrik asko, Iñaki, zure berbaketik.  Orain, Jerardo, zure ibilbidia hobeto kokatu guran, zeuk idatzitako testu baten irakurketia entzungo dogu. Bertan zure gazte girua deskribaiten dozu .... 50eko garai illun ha ... euskal literaturiaren aurkikuntzia ...
			<b>6. Musika: A.Balberde</b>
	<b>Soinua behera eta gora behin bukatuta</b>	Rafael Altuna	
	<b>7. Argazkia: Patxi</b>	Olatz Osa	Eskerrik asko, Rafa Entzun dogun testu honek Patxi Hipolitoren ekimenez ikusi eben argixa.  Patxi 2010ian itzi ginduen, baiña ondo goguan dogu bere izaera herritarra eta egindako ekarpen ugariak. Herriko kulturgille sutsua zan Patxi; hainbat proiekturen pultzatzaillia, lankidetzarako betik gertu, argitaratzaillie libria eta komestante nekaeziña.  Gure aitortza eta esker ona, Patxi!
Bertsuak 8 min	<b>8. Argazkia</b>	Olatz Osa	Bertsuak ezin ziran falta gaurko omenaldixan eta herriko bertsolarixak eztozkue kalerik egin. Igo degixeilla oholtzara Urko Egaña, Arantzazu Sagarzazu eta Josu Igartua bertsolarixak! Jose M <sup>a</sup> Anduagak kittiarekin lagunduko doste.
		Bertsolarixak	
Kantuak 6 min		Olatz Osa	Eskerrik asko Urko, Arantzazu eta Josu Orain, Jose M <sup>a</sup> Anduagak eta Xabier Ugartek kantu bat kantauko doskue, okasiño honetarako Idoia Etxeberriak sortutakua.
	<b>9. Galdetu Jeradori Letria</b>	Musikuak	

Ekintzia	MATERIALA	Nor	Testua
Poesia 9 min	<b>10.Argazkia. Demodoco</b>	Olatz Osa	Eskerrik asko Jose M <sup>a</sup> eta Xabier.  Ondoren, poesia, literatura eta beste hainbat kontu Bittorixan bizi diran bi oñatiarren eskutik: Pruden Gartzia eta Gerardo Markuleta. Txalo bero bat eurendako!
		Pruden Gartzia	
	<b>11. Argazki Sorta: Lekuak 12. Poema eta musika aldi berean</b>	Gerardo Markuleta	Hitzak: 1:30 min Poema: 1:00 min Kantua: Luzeagoa da baina 4:45 min eten behar da
	<b>Musika jeitsi</b>	Olatz Osa	Eskerrik asko Pruden eta Gerardo
Paiazuak 5 min	<b>13. Argazkia</b>	<b>Paiazua ustebagian sartzen da</b>	
Paiazuaren ostian		Olatz Osa	Danok jakin guran! Potxek be Jerardogana jo dau zalantzak argiketako. Hau da markia, hau!
Historia eta Arte Bilduma  4 min	<b>14. Argazki sorta: Bilduma</b>	Olatz Osa  1 min 52 seg	Lehentxuago esan dogu, eta astian zihar eginddako ekitaldittan agerixan geratu da, Jerardo hainbat eta hainbat arlotan dala adittua, eta zer esanik ez, arittua! Bakarka eskiñitako lanak asko dira, baiña talde-lanian be sarri jardun dau.  Talde lan ugari horrein artian dago <i>Oñatiko Historia eta Arte Bilduma</i> liburu aberats eta ederra, bertako hainbat argazki ikusten gabiltz momentu honetan.  1982xan Oñatiko Liburutegixaren Batzordekidiak sortu euen Bilduma hori mugarri izan zan bere garaixan, bai ebalittako baliabide gutxiengatik bai lortu ziran emaitza balixotsuengatik Liburua argittaratu zan momentuan, Euskal Herrixan eta euskal kulturaren ondo jantzitako pertsonak estimu haundixa erakutsi otsain eginddako lanari. Horietako bi aipamen nabarmen ekarri gura dittugu gaurko saixo honetara: Juan San Martinek Bildumaren hitzaurrian azpimarratu eben, sinesgaitza zala iñungo laguntza barik taldiak burututako lanaren bikainttasuna eta, Aita Villasantek be, bere aldetik, berba honeik esan osten Bildumiaren egilliari:  <i>“...harrigarria eta zoragarria da benetan bilduma paregabe hori, bildu dituzten xehetasun ugariengatik, argazki, mapa eta abarreatatik ...”</i>

Ekintzia	MATERIALA	Nor	Testua
Historia eta Arte Bilduma	<b>15.Argazkia: Liburutegi taldea</b>	Olatz Osa	<p><b>(TALDIAREN ARGAZKIXA AGERTUKO DA PANTAILLAN)</b></p> <p>Orain ikusten dogun argazkixan egilliak agerketan dira, ezkerretik hasita: Pedro Luis Ormazabal, Felix Mari Ugarte, Adelina Moya, Xabier Zelaia, Maixabel Elortza, Juantxo Madariaga, Luxio Ugarte, Jerardo Elortza, Jerardo Agirre, Agustin Goenaga, Iñazio Irizar eta Jesus Etxezarreta.</p> <p>Gaurko egunian gurekin eztaguen ekintzaille horreittako bat, Felix M<sup>a</sup> Ugarte, bereziki gogoratu gura dogu poema baten bittartez. Jerardok bere lagun miña zanari erretratu leiala eta esanguratsua eskiñi otsan bertso horretan eta, orain, Felixen alabiak, Ane Ugartek irakurriko dosku.</p>
	<b>16.Argazkia: Felix</b>	Ane Ugarte	
Lagunen bideua	<b>17. Bideoaren karatula</b>	Olatz Osa	<p>Eskerrik asko, Ane!</p> <p>Gaur etortetik izan eztauein Jerardoren lagun batzuk be gura izan daue ekittaldi honetan parte hartu. Hona hemen bideotxo baten jasota euren iritzi, atxikimendu, esker berba, baita pasadizoren bat be. Miren Arregik eta Bernat Alberdik gertatu daue bideua.</p>
	<b>18. Bideoa martxan</b>	Bideua	
	<b>19. Aizu-Aizu bideoa martxan</b>	Aizu-Aizu bideua	
Euskalerrriaren Adiskideen Elkartea	<b>20. Argazkia</b>	Olatz Osa	2013an, Jerardo Jose Antonio Azpiazurekin batera, Euskalerrriaren Adiskideen Elkartearen kide izendau euen. Gaur, Elkartiaren izenian Jose Antoniok berba batzuk esango dittu. Jose Antonio, gura dozunean ...
		Jose Antonio Azpiazu	

Ekintzia	MATERIALA	Nor	Testua
Atxikimenduak		Olatz Osa	<p>Eskerrik asko, Jose Antonio.</p> <p>Ezaguna da, Jerardo, euskal munduan harreman estuak izan dittuzula azkeneko hamarkadetan nabarmendu diran idazle, euskaltzale eta pentsalari garrantzitsu eta ospetsuenakin. Horrein artian bereziki nabarmendu dan lagun bat Joxe Azurmendi da eta gaurko honetan gurekin bat egittia gura izan dau. Hona hemen Joxeren berbak:</p> <p><i>Egun on, adiskideok:</i></p> <p><i>Merezia du Jerardok, bai, omenaldia, eta ni gogoz atxikitzen natzaio omenaldi horri.</i></p> <p><i>Kontua da egunotan ezin dudala Oñatira joan. Beraz, adierazi, mesedez, nire omena Jerardori, zuek nigandik espero zenutena ezin egin badut ere.</i></p> <p><i>Agur zuei, oñatiarroi, pixka bat oñatiarra sentitzen naizen honengandik (nire osaba-izeben eta "Aramaixuena" baserriaren oroitzapen gozoak geratzen zaizkit nire haurtzarotik).</i></p> <p style="text-align: center;">Joxe Azurmendi</p> <p>Beste lagun batzuk be bialdu dittue euren zorion-agurrak, batzuk aittaketiarren: <i>Kirmen Uribe</i> Ondarruako idazliak, <i>Koldo Zuazo</i> hizkuntzalarixak, <i>Kike Amonarriz</i> soziolinguistiak eta telebisiñoko aurkezliak, <i>Miren Azkarate</i> euskaltzaiñak edota <i>Jose Luis Ugartek</i> Legazpiko kultur eragiliak.</p>
Ikasunidadia		Olatz Osa	<p>Omenaldi hau antolaitiaren beste arrazoi bat Jerardok bizitzan zihar egin dittuen lanai jarraipena emutia izan da. Horretarako, herriko ikastetxietara jo, ideia azaldu eta ontzat jo ondoren, Jerardoren gidaritzapeian DBHko curriculumerako ikasunidade bat lantzeia pentsau daue. Gaur, lanaren aurkezpena egingo doskue mailla horretako herriko hiru ikastetxietako ikasle banak:</p> <p>Zuazola institutuko Uxue Ugaldek, Txantxiku Ikastolako Aimar Plazaolak eta Elkar Hezi ikastetxeko Maddi Altolagirrek.</p>
	<b>21.Argazkia: trena</b>	Ikasliak	
Alkatiaren berbak eta oparixak	<b>22.Argazkia: Udala</b>	Olatz Osa	<p>Eskerrik asko, hiruroi!</p> <p>Omenaldixa aurrera doia, eta Mikel Biain alkatiaren berbak entzuteko ordua heldu xaku. Gura dozunian ...</p>
		Mikel Biain	
		Olatz Osa	<p><b>Eskerrik asko, Mikel.</b></p> <p><b>Mikel Biainek eta illoba Izarrek opaixak emungo xaue Jerardori</b></p> <p><b>Izar, igo gora, mesedez</b></p>
Azken berbak	<b>23 . Argazkia</b>	Olatz Osa	Jerardo Elortza omendua: zuria da berbia!
		Jerardo Elortza	

Ekintzia	MATERIALA	Nor	Testua
Kantuak		Olatz Osa	Eskerrik asko, Jerardo Eta orain, bai, amaierara ailegau gara eta kantuan emungo xaugu akaberia omenaldixari. Horretarako, <b>Oñati abesbatza</b> etorri dadilla gora, euren zuzendarixa Mirengu Plazaolarekin. Bi kantu kantauko dittue: <i>Maritxu nora zoaz</i> (herrikoixa) eta <i>Txanton Piperri (edo Euskal Herriko)</i> (Buenaventura Zapiarainena) Ekin, ba!
		Oñati abesbatza	
Azken agurra		Olatz Osa	Eskerrik asko!  Azkenengo oharrak: Hemendik urtendakuan talde-argazki bat atarako dogu kanposantuko bide hasieran dagozen eskilaretan. Beraz, parte hartu gura dozuenok hurreratu hara. Eta 14:30ian <i>Etxe Aundi</i> jatetxian alkartuko gara lagun arteko bazkarixa egitteko. Autobusian fateko izena emun dozuenok 14:15ian autobus geltokixan dozue hitzordua. Gogoratu bestalde, hurrengo domekan, hillaren 17xan, Natur Eskoliaren eskutik Araotz-Urrusula ibillaldixa daguela antolatuta, eta txango horretan Jerardok berak eta Imanol Biaiñek egingo dittueilla gidari-lanak. Eta orain akabaitteko danok batera zutik <i>Agur Jaunak</i> kantauko dogu.  Eskerrik asko danoi! Agur eta beste bat arte!
Agur Jaunak		Oñati abesbatza	Agur Jaunak!